BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

**PRENTSARAKO DEIALDIA**

## BIZKAIKO EMAKUME HAUTETSIEN IV. BATZARRA

**Lekua**: Gernikako Batzarretxea
**Eguna**: Barikua, 2020ko martiaren 6a
**Ordua**: 11:30

Streaming (12:00etatik aurrera hemizikloan):
https://www.jjggbizkaia.eus/home2/audio_grabaketa/emisiones_directo.asp

-----------------------

**PRENTSARAKO OHARRA**

## EMAKUME HAUTETSIEN IV. BATZARRAK DEMOKRAZIA GARAIKO BIZKAIKO BATZARKIDEAK OMENDUKO DITU

- **116 emakume aukeratu dira 1979 eta 2020 artean.**
- **Bizkaiko Batzar Nagusiak, 1979-1983 lehenengo Legealdian bost emakume hautetsi izatetik gaur egun dituan 26ra pasau dira.**

(Bilbon, 2020ko martiaren 2an). 116 emakumek Bizkaiaren omenaldia jasoko dabe, lau hamarkada baino gehiagoko epean, 1979an Bizkaiko Batzar Nagusiak barriro beharrean hasi ziranetik, gure lurraldeko 51 jarlekuetako baten bat beteteagaitik. Jente aurreko aintzatespen hori, Bizkaiko Batzar Nagusiek, Emakundegaz eta Eudelegaz (Euskal Udalerrien Alkartea) antolatuta bariku honetan, martiaren 6an, 11:30etik aurrera Gernikako Batzarretxean egingo dan Emakume Hautetsien IV. Batzarrean emongo da. Emakume horreek omenduteko ekitaldian Eusko Legebiltzarreko eta Kongresuko emakume hautetsiak, zinegotziak eta alderdi politikoetako arduradunak be egongo dira, gizonen eta emakumeen arteko benetako bardintasunaren alde aurrera egiteko helburu komunean alkartuta.

Datorren apirilean, 41 urte beteko dira Demokrazia barriro ezarri zanetik Bizkaiko Batzar Nagusiak barriro beharrean hasi ziranetik. 1979-1983ko lehenengo agintaldian bost emakume aukeratu zituen herritarrek Batzarretan

jarteko, oso gitxi, garai haretan Bizkaiko Batzarretan 92 gizon egozala kontuan hartzen badogu. Batzarretako lehenengo argazki haretan Pilar Aresti, Amaya Aristizabal, Rosa Díez, Maite García eta Isabel Lertxundi egozan. 1995-1999 legealdian jauzi esanguratsua emon zan emakumeen presentziari jagokonez, 15 batzarkide aukeratu ziran eta. Beste 20 urte igaro behar izan dira parekotasuna lortzeko, agintaldi honetako erlazinoa hau dalako: 26 emakume eta 25 gizon.

Guztira, denpora tarte horretan, Bizkaiko Batzarretan 116 emakume jarri dira jarlekuetan batzarkide moduan, Demokraziaren 11 legealdietan. Bizkaiko Batzar Nagusiek guztiak konbidau ditu hautetsien laugarren bilera horretan parte hartzeko, eta horreetako asko bertan egongo dira bariku honetan barriro, eurena izandako jarlekuan jarrita.

## EMAKUMEEN ERRITUALA

Ohikoa danez, txistuaren soinuak egingo deutse arretea emakumeei Batzarretxera heltzean, eta bakotxak oroimenezko zapi bat jasoko dau. Ekitaldiaren lehenengo geldiunea Gernikako Arbolaren aurrean izango da, eta Beti Jai Alaia taldeko emakume dantzariek, antxina janzten ziren moduan jantzita, Lekeitioko Emakumeen Aurreskua dantzatu eta, ostean, zirkulua eratuko dabe. Zapiakaz euskal hautetsiak lotzen joango dira, holan, alkarregaz, batasunean, Gernikako Batzarretxeko ate nagusira joateko. Emakume dantzariek igarobidea osatuko dabe, eta 200 konbidau baino gehiago, omendutakoen eta hautetsien artean, bertatik sartuko dira osokoen aretoan.

Apur bat geroago, gizaldietan Bizkaiko Batzarren saioen hasera marketan eban “adarraren” soinuaren ostean, Batzarra hasiko da, Ana Otadui, Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakaria buru dala. Bertaratutako guztiak agurtuko ditu, eta Batzarretako taldeetako bost emakumeri emongo deutse lekukoa. Emakume horreek, Eudelek, Emakundegaz lankidetzan, prestau dauen eta Bizkaiko Batzar Nagusiek sinatu daben Martiaren 8ko, Emakumeen Nazinoarteko Eguneko, Erakundeen Arteko Adierazpena irakurriko dabe.

Horren ostean, Bizkaiko batzarkideei egingo jaken omenaldia eta aintzatespenen banaketa hasiko da. Eurak dira Emakume Hautetsien IV. Batzarreko konbidau bereziak, eta gizonen eta emakumeen arteko bardintasuna lortzeko burrukaren oso irudi berezia osatuko dabe.

Hemizikloan, omendutako guztiei, bertan dagozanei eta ez dagozanei, eskainitako ohorezko aurreskua entzungo da, eta Miren de Miguelek, Iparragirreren, XIX. mendeko bardoaren, “Gernikako Arbola” interpretauko dau. Ekitaldiari amaiera ezin hobea emoteko, emakume guztiek argazkia aterako dabe Gernikako Arbolaren azpian.

BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

**CONVOCATORIA DE PRENSA**

## IV ASAMBLEA DE MUJERES ELECTAS DE BIZKAIA

**Lugar**: Casa de Juntas de Gernika
**Fecha**: Viernes, 6 de marzo de 2019
**Hora**: 11:30

Streaming (a partir de las 12:00 horas en el hemiciclo):
https://www.jjggbizkaia.eus/home2/audio_grabaketa/emisiones_directo.asp

----------------------

**NOTA DE PRENSA**

## LA IV ASAMBLEA DE MUJERES ELECTAS RENDIRÁ HOMENAJE A LAS JUNTERAS DE BIZKAIA DE LA DEMOCRACIA

- **116 mujeres han sido apoderadas entre 1979 y 2020.**
- **La Cámara vizcaína ha pasado de tener cinco mujeres electas en la primera Legislatura 1979-1983, a 26 en la actualidad.**

(Bilbao, a 2 de marzo de 2020). Un total de 116 mujeres recibirán el homenaje de Bizkaia por ocupar alguno de los 51 escaños del territorio en las últimas cuatro décadas, desde que se restablecieran las Juntas Generales de Bizkaia en el año 1979. Este reconocimiento público se llevará a cabo en la IV Asamblea de Mujeres Electas de Bizkaia que, organizada por las Juntas Generales de Bizkaia, en colaboración con Emakunde y Eudel (Asociación de Municipios Vascos), se celebrará este viernes, día 6 de marzo, a partir de las 11:30 horas en la Casa de Juntas de Gernika. Un homenaje a estas mujeres en un acto en el que se mezclarán con diputadas, parlamentarias vascas y del Congreso, ediles y responsables de partidos políticos, que estarán unidas en el objetivo común de caminar en la igualdad efectiva entre hombres y mujeres.

El próximo mes de abril, el Legislativo bizkaino cumplirá 41 años de actividad desde que se restablecieran las Juntas Generales de Bizkaia tras la restauración de la Democracia. En la primera legislatura 1979-1983, cinco

mujeres fueron elegidas por la ciudadanía para ocupar asiento en la Cámara foral, una minoría si lo comparamos con los 92 hombres del Parlamento de Bizkaia de aquel entonces. En aquella primera foto del Parlamento de Bizkaia estuvieron Pilar Aresti, Amaya Aristizabal, Rosa Díez, Maite García e Isabel Lertxundi. Fue en la Legislatura 1995-1999 cuando se produjo un salto significativo en la presencia femenina, ya que las junteras llegaron a ser 15. Y tuvieron que pasar otros 20 años para llegar a la paridad, ya que la relación en el presente mandato es: 26 mujeres y 25 hombres.

En total, la Cámara vizcaína ha visto como durante este tiempo 116 mujeres tomaban asiento como apoderadas en sus 11 legislaturas de la Democracia. Todas ellas han sido invitadas por las Juntas Generales de Bizkaia a participar en esta cuarta reunión de electas, y muchas de ellas estarán este próximo viernes ocupando de nuevo ese escaño.

## RITUAL FEMENINO

Como ya es costumbre, el sonido del txistu recibirá a las mujeres a su llegada al recinto, donde cada una recibirá un pañuelo conmemorativo. La primera parada del acto será ante el Árbol de Gernika, donde dantzaris del grupo Beti Jai Alaia, ataviadas a la antigua usanza, bailarán el Aurresku de Mujeres de Lekeitio y luego, formarán un círculo. Irán enlazando con los pañuelos a las electas vascas, que encaminarán así, unidas en concordia, hacia la puerta principal de la Casa de Juntas de Gernika. Las dantzaris formarán un pasillo por donde entrarán en el salón de plenos las más de 200 invitadas, entre homenajeadas y electas.

Poco después, tras el sonido del “adarra”, el tradicional sonido que desde hace siglos ha marcado el inicio de una sesión juntera en Bizkaia, comenzará la Asamblea, encabezada por Ana Otadui, Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, quien saludará a las presentes y pasará el testigo a cinco mujeres de los grupos junteros que compartirán la lectura de la Declaración Institucional del 8 de Marzo, Día Internacional de las Mujeres, elaborada por Eudel, en colaboración con Emakunde y suscrita por Juntas Generales de Bizkaia.

A continuación, comenzará el homenaje y la entrega del reconocimiento a las junteras bizkainas, las invitadas especiales de la IV Asamblea de Mujeres

Electas, que compondrán una imagen especial de lucha por la igualdad de hombres y mujeres.

En el hemiciclo resonará un sentido aurresku de honor para todas las homenajeadas, las presentas y las ausentes, y la interpretación del himno "Gernikako Arbola", del bardo del siglo XIX Iparragirre, a cargo de Miren de Miguel. El broche final del acto será una foto conjunta de mujeres bajo el Árbol de Gernika.